

# BESTELAKO XEDAPENAK

BERDINTASUN, JUSTIZIA ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

## 4778

*144/2023 DEKRETUA, urriaren 3koa, Alday Fundazioa erakundea gizarte-interesekotzat aitortzeko dena.*

Zerbitzu Sozialei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 74. artikulua xedatzen duenez, gizarte-interesekotzat deklaratu ahal izango dira zerbitzu sozialak ematen dituzten irabazi-asmorik gabeko erakundeak –araz zehaztutako baldintzak betetzen dituztenak–, hain zuzen, gizarte-ekin-tzako hirugarren sektoreak Autonomia Erkidegoan gizarte-zerbitzuak garatzen egiten duen ibilbidea eta ekarpena aitortzeko.

Urriaren 7ko 424/2013 Dekretuak, gizarte zerbitzuak ematen dituzten irabazi-asmorik gabeko erakundeak gizarte-interesekotzat aitortzeari buruzkoak, gizarte-intereseko aitortzea lortzeko baldintzak eta prozedura arautzen ditu.

Haren babesean, aipatutako aitortzea eskatu du Alday Fundazioa erakundeak, uste baitu merezi duela gizarte-interesekoa dela aitortzea, gizarte-ekin-tzaren arloan egiten dituen jardueren-gatik.

Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzak adierazi bezala, Alday Fundazioa erakundea 1933. urtean eratu zen. Erakundeak helburu hauek ditu:

a) Adinekoei gizarte-arreta ematea, beste prestazio batzuen artean ostaturia, mantenua, zaintza eta laguntza fakultatiboa emanez, azken hori dituen baliabide pertsonal eta materialetara egokitu-tako neurrian.

Eta, oro har, ongintzako, laguntzako eta sustapen soziokulturaleko zerbitzuak ematea, Aiaral-dean jaiotakoak eta hango herritarrak bereziki aintzat hartuta.

Ibilbide historikoa du Euskal Autonomia Erkidegoan gizarte-zerbitzuak ematen; izan ere, egiaz-tatu du bere jarduera etenik gabe burutu duela 2018tik aurrera, Euskal Autonomia Erkidego osoan. Batez ere Arabako Lurralde Historikoan garatzen ditu bere eginkizunak.

Aipatutako urriaren 7ko 424/2013 Dekretuan xedatutakoaren arabera, Gobernu Kontseiluak onartutako dekretu baten bidez egingo da gizarte-intereseko aitortzea, gizarte-zerbitzuen arloan eskumena duen sailburuak proposatuta, zeinak dagokion espedientea izapidetu baitu.

Ondorioz, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuaren proposamenez, eta 2023ko urriaren 3ko Gobernu Kontseiluak proposamena aztertu eta onartu ondoren, hau

### XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– Alday Fundazioa erakundea gizarte-interesekoa dela deklaratzeko, burutzen dituen gizarte-ekin-tzen bidez Euskal Autonomia Erkidegoan gizarte-zerbitzuak garatzen laguntzeagatik.

2023ko urriaren 19a, osteguna

2. artikulua.– Alday Fundazioa erakundeari aitorten honen berezko eskubideak aitortzea, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 74. artikuluan xedatutakoak.

Vitoria-Gasteizen, 2023ko urriaren 3an.

Lehendakaria,  
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburua,  
NEREA MELGOSA VEGA.